



B. ZULOAGA- PASEO BERRIA IBILBIDEA



1. Begiratokiko bastioa
2. Ingelesen hilerria
3. Lizarrak
4. Intsusa beltzak
5. Bidea
6. Itsas pinuak

7. Bolborin zaharra
8. Astigar zuria
9. Jesusen Bihotzaren monumentua
10. Begiratokiak
11. Biltegi zaharra
12. Bardoken Bateria

Ibilbide hau Zuloaga plazatik eskailerak igoz hasiko dugu, San Telmo Museoarean ondotik. Eskuinalderantz goazela, zuhaitz sendo batzuen azpitik ibiliko gara, **Begiratokiko bastioira (1)** iritsi arte, tunel txiki bat zeharkatu eta gero. Begiratokiko bastioiak Urgull babesten zuen itsasoko erasoetatik, baita Ulia eta hareatzak ere Urumearaino. Ezkerralderantz goazela iritsi gaitzeko begiratokira eta, tarte labur batez, bertatik eskaintzen zaigun paisaia zoragarria behatu.

Bidera bueltan, ezkerraldera, leku itzaltsu bat ikusiko dugu: bertan, ugaria da ezohikoa den iratze bat, hosto osokoa, orein-mihi (*Phyllintis scolopendrium*) (M1) izenez ezagun, duen forma bereziagatik. Iratze hau zauriak, ubelak eta hematoma sendatzeko erabili ohi zen lehenaldian. Bideari jarraituz, **Ingelesen hilerriaren (2)** ondotik joango gara, Lehen Gerra Karlistan hildako soldadu ingelesen oroimenez eraikitako hilobi-monumentuaren ondotik alegia. Toki hau nahiko hostotsua da, eta haitz-usoak (*Columba livia*), zozoak (*Turdus merula*) eta birigarroak (*Turdus spp.*) bertaratzen dira adar artean babesleku bila.

4. goranzko bidean, **lizar** (*Fraxinus excelsior*) (3) eta **intsusa beltz** (*Sambucus nigra*) (4)



batzuk daude bi aldeetan. Eskuinaldera, **bide** batek **(5)** sigi-saga eginez egiten du behera, eserlekuak dituzten begiratoki batzuen ondotik goazela: atsedean hartzeko eta itsasoari begira egoteko aukera paregabea. Gure bideari berriro heltzean, **itsas pinuen** (*Pinus pinaster*) **(6)** zuhaitzi batetik joango gara. Hala, ezkerralderantz, **Bolborin zaharra** **(7)** topatuko dugu. Paisaia berriro aldatzen da, hostozabalak ugaritzen diren ingurunea.

Motako gaztelura iritsiko gara iparraldeko sARBIDEAN dauden eskaileretatik, **astigar zuri** (*Acer pseudoplatanus*) **(8)** eder baten ondotik. **Jesusen Bihotzaren monumentu** **(9)** ezaguna ikus dezakegu kaperaren gainean, gazteluaren erdian. Erdiko eraikinaren ingurutik ibiliko gara eta sARBIDE nagusitik jaitsiko gara, Gobernadorearen Goi Bateriarantz. Bertako **begiratokietako** batetik bista zoragarriak ditugu **(10)**, hiriaren Alde Zaharrekoak eta Zabalguneakoak.

Beherantz goazela, harrizko eraikin txiki bat topatuko dugu, Natur Txoko (M2) ize-
nez ezagun. Bertan, hurrei zuzendutako ingurumen hezkuntzako ekintzak egiten dira udaldian. Handik, berriro jaitsiko gara Ingelesen hilerriraino eta nahiko aldapa handi batean behera joango gara. Ezkerraldean, hezegune bat dago, iratzez betea. Leku hobezina da egunean zehar arrabioek (*Salamandra salamandra*) (M3) euren ezkutalekua aurkitzeko bertan dauden harri, zuhaitz-enbor edo zulo ugarien artean.

Jaistean, **biltegi zahar bat** **(11)** topatuko dugu: arrokan dago eraikia eta itxita dago. Milazken (*Tamarix gallica*) (M4) artean goazela, **Bardoken Bateriara** **(12)** iristen gara, denbora luze donostiarren hornikuntza-iturri nagusi izandakora. Leku hau zuzenean dago itsasoari begira, eta bertan hazten den landaredia egokitu egiten da gazitasuna eta haize handiak jasateko. Gune hau osatzen duten landareen artean daude espezie hauek: urzain-belarra (*Plantago maritima*), zauri-belarra (*Anthyllis vulneraria*) eta Armeria euskadiensis.

Ibilbidea bukatzeko Pasealeku Berriraino jaitsiko gara. Pasealeku hau itsasoari lekua hartuz eraiki zen. Hortaz, batzuetan, olatuek talka egiten dute, indarrez gainera, eurena izandako eremua eskatuz.